


**Familia estimatuak,**

**Ongi etorri jantokiko ikasturte berrira!**

Txikienen elikadura hobetzeko konpromisoa harturik, “Jaten ikasi” aurkezten dizuegu, Sodexoren hezkuntza-proiektu berria, sukaldaritzako, nutrizioko eta astialdiko profesionalek garatu dutena Pepe Rodríguez chef ospetsuarekin batera.

Programaren helburua hau da: ikasleen esperientzia hobetzea gastronomian eta nutrizioan, gozamena eta parte hartzea abiaburu harturik.

## Zertan datza gure proiektu berria?

**Ikuspegi integraleko proiektu bat aurkezten dugu, hiru zutabe dituena:**

1. **BERRIKUNTZA GASTRONOMIKOA:** Sukaldaritza teknika berriak lantzen ditugu, plateren prestakuntza aberasteko, elikagaien zapore naturala eta errezeten aurkezpena indartzeko. Gure helburua da umeek elikagai berriak proba ditzaten bultzatzea.

   Hilean-hilean, jardunaldi dibertigarri bat antolatuko dugu jantokian. Nutrizioa eta kultura batuta, Pepe Rodríguezek gure eskualde gastronomiako platerak eta zaporeak aurkeztuko dizkigu.

2. **NUTRIZIO PRESTAKUNTZA:** Geletan sartuko gara, umeei ondo jaten irakasteko, era jasangarri eta orekatuan, bai eskolan, bai etxean familiarekin.

3. **DIBERTSIOA:** Ikasleak protagonista izan daitezen nahi dugu. Umeen parte hartzea eta bizikidetasuna sustatzen ditugu hezkuntzako jarduera ludikoen bitartez, elikaduraren, bizimodu aktiboaren eta ingurumena zaintzearen inguruko ohitura onak irakatsiz.

**Pepe Rodríguez chef exekutiboak kontatzen dizu dena xehetasun gehiagorekin bideo honetan:**




Azken batean, “Jaten ikasi” programak erakutsiko digu zein garrantzi duen gastronomiak gure osasunean, era hezitzaile, sortzaile eta dibertigarrian.

**Jantokian gaituzue denok zain!**